



Aitita-ordiaren Arenengo ipuñña

BUSTINTZA'
tarr Errose'k

Txikitari be, ipuin zale-zalia nintzan; eta zaletasun begiko ori zala-ta, ipuin politen bat nun eta zelan entzungen, artega samar ibiltzen nintzan. Ikastolara juaten nintzanetan, neure laguntxueri sarritan be sarritan ixil-mixilka esaten neutzoen: — « Gaur, zelako ipuñña dakazuez ba? ». « Aitita-amamak bart zer edestu dautzue ba? ». Ta beriala, neure laguntxuak, itaun orreri egokiro erantzunaz, sekulako ipuin politik edestuten eustiezan.

Nik baña, tamalez, neure aitita-amamak egundo ezagutu enebazalako, neure adizkide ta lagunerari ipuin askorik ezin ixaten neutzoen edestu. Nire gurasuen gurasuak ni ludiratu orduko bestalderatu ziralako, euren aboetatik ezertxu be entzuteko zorijonik ez neban ixan... Ori barriz, zoritxarr anditzalet etsiten neban. Eta zoritxarr ori gogoan nebalarik, lagun-arr-tian bein-baño geyagotan esan ixan neban: « Neure aitita-amamak bixi balira orratik; a zelako ipuñña edestuteko neukezan! » Eta ori esaten neban bakotxian neure begitxuak malko-garratiaz ezotuten ziran. Olakoxe ipuin zale erri-mia nintzan!

Ganeko egun baten, esaniko itzak buruan nebazalarik, neure barruan asmu berezi gozoa sortu zan; eta asmu gozo orren altuan, zelan be enekijala, neure ipuin-egarrija asetuteko, erriko atso-aguraen arr-tian aitita-amamaren bat billatutia erabagi neban.

Ain zuzen be, urrengo igandian, amarretako meza nagosi-ostian, agurtxu zarr bat, larogel urteren zama astuna bizkarrian ebalarik, oin narrakza etxerantzaz joyala ikusi neban. Agure ori, errijan, « Baltzuntze » basetxian bixi zalako. « Baltzuntze'ko Andolin » ixenagaz ondoen ezagutzen zan. Ondo gixon ona ta zintzia bera!... Basetxe zarr aretan, bere emaztia ta bera, beti donokira begira bixi zirala esaten eben. On-onak ziran bai!...

Eta igande aretan neure asmu ta zaletasuna betetutiarren, Andolin agurrgarriari, geldiro geldiro atzetik jarraitu neutzon; eta bere ondora eldutian, neure aitita ixatia gura etc eban itandu neutzon; eta ori entzutian, Andolin on-onak, neure aitita poz-ozik ixango zala, barreka esan eustan. Orduan nik, dan ixan ezker, igande guztijetan etxerantza lagunduko neutzola esa neutzon, begijak be erdi-itsutubak eukozala-ta: orretarako baña beriala baldintza po'it bat iminteko azarritasuna ixan neban. Igande guztijetan ipuin bat edo beste edestu biarreko eustala esan neutzon. Eta agure agurgarri ta onak baldintza ori onez arrtuta neure gurarija poz-ozek betetuko ebala esan eustan; ganera barriz, lantzian-bein, kerexak, sagarrak eta intxaurrak eta abarr, emongo eus-

tazala be esan eustan. Orduko nire poza! Ene! Ezti-bitzetan saltuka!...

Gerotxuago nik barriz, bere itzakaz jaubetuaz, antxe bertan ipuintxu bat edestuteko arren egin neutzon; eta beste barik Andolin aguriaren abotik ipuin polit-polita urten zan. Ona emen:

« Bein baten, Ganoste menditik Urkileta'ko gixon bat burdibete egurregaz etxerantza etorri zan; eta gixon ori, negurako egurr ederra pillatu ebala ta, bidian poz-ozek etorran. Onetan, burrdi-txirringa batek lupetzan laprask egin ebala, burrdija itzu'li egin zan. Ori ikusita, Ur-

kioleta'ko gixonak, goyak eta beyak aitatuta, asarre-bitzetan birau ikeragarri bat jaurtin eban. Orduan Itsuerreka-aldetik adarr-buztendun txerren bildurgarrijak agertu ziran; eta txerren adarr-okerr arek Urkioleta gixona, atzealdetik burduntzi gorrija sarritzen etzuelarik, bere burrdi ta idi ta guzti Artzate-ko labarra gora aye-na baten eroanda Akelarre-ko txuntxurrera eroan eben; eta geyago gixon biraularijaren aztarren-ik ifio egundo ezaban ikusi.

Txerren bildurgarrijak, euren soin baltzak jake-luze gorrijak ezalduten ei-ebazan; eta euren onetan burdiñazko oski gogorrek ei-eukoazan ».

Agure zarraren ipuñña entzutian, poz gozo-gozoa barruan ganezka nebalarik, une-atan ludijan zoruntsuena neu nintzala uste ixan neban; eta uste atseingarri orregaz ezin geyagoan poztuta, aguretxuari eskuan mun-egiaz agurr egifikuan, neure etxera pozez beferik juan nintzan.

Eta bijaramonian, ikastolara-tutiagaz batian ipuintxua irakasle-miari ta neure laguntxueri aritik-mamira edestu neutzoen; baita « Baltzuntze'ko Andolin » egaz egin neban izketalditxueren barri be zietz-zietz emon neutzoen. Orduan, irakasle-miak, erukitsua ta ona ixateko ta zarrari gogo-enez laguntzeko ta abarr esanda, idaztiño polit bat emon eustan. Ain bezuz polita eskuratxian bijotz-ikutze gozoa ixan neban; eta neure begijak malkoz ezotuta nebazalarik, bere aolkuak onez arrtuten nebazala ta esanak osuan betetuko nebazala esan neutzon.

Esan eta egin, aurrerantzako igande guztijetan meza nagosi-ostian « Baltzuntzeko » aguriari « aitita » aboa betian esanaz etxera gogo-enez laguntzen neutzon, naitz ta laguntxuakaz jolasian ibili, guztija itxita aitatagana juaten nintzan. Geroago barriz, erriko atso-agura guztijakaz aizkide andi egin nintzan. Eureka-kidik barriz amal-katxu gauza on eta ederr entzun ixan nebazan!... Zenbat esakun eta aolku onuratsu!... Jaungoiko ona!...

« Zarraren esana gaziaren zentzuna »,

